

## 10. Sarkisian, Kapanaga eta Txillardegiri omenaldia

---



### Vahan Sarkisian, 1954-2011

Armeniako Everan-eko Unibertsitateko irakaslea izan zen. Horrez gain, Armeniar-Euskal Ikastetxeko eta *Araxes* aldizkariko zuzendaria ere

Euskaltzaindiko ohorezko kidea izateaz gain, etnografiaz interes handia izan zuen, Satrustegirekin harreman handia izanik

Euskararen Jatorriaren bi Biltzarretara ponentzia bana bidali zuen:

- 1. Contribución a la reconstrucción interna del vocabulario vasco en el campo semántico de argi (luz)*
- 2. Onomástica vasco-armenia: comparación a través de reconstrucción*

Vahan Sarkisianek hemengo egunkari batean egin zioten elkarrizketa batean hauxe esan zuen: "Nola jakingo dute euskera norantz doan, nondik datorren ez badakite?"

Izan ere, hemengo hizkuntzalarien artean euskararen jatorriari buruz kezka gutxi zegoela ikusten zuen.

Egindako liburuen artean honakoak azpimarra daitezke:

- Euskara-Armeniera hiztegia
- Euskal gramatika laburra
- El enigma del origen de los vascos y la meseta de Armenia (el problema de las relaciones armenio-vascas en las fuentes vascológicas y armenológicas)
- The Urartean civilization and the problem of the original homeland of Basques
- Etymological dictionary of the Russian language
- Elementos armenios de origen vasco

Armeniarekin elkartzen gintuen pertsona garrantzitsuena joan zaigu.



## **Bittor Kapanaga 1925-2011**

Bitorrek bizitza osoan zehar burdina izan zuen lanbide eta euskara gogobide, eta orain joan zaigula, betoz lerro hauek euskal kulturaren eta bereziki euskararen jatorrian egin duen ekarpen garrantzitsua labur-labur gogoratzeraz.

Txiki-txikitatik berezia izan zen. 14 urte zituelarik, udako oporren ostean erabaki zuen eskolara ez itzultzea “inperio baten parte izan nahi” ez zuelako. Izan ere 1939. urtean, frankismoko eskolaren funtzioa argi eta garbi zegoen. Horrela, abereak zaintzen zituen bitartean liburuak irakurriz bere ikasketak osatzen eta munduratzeko ibili zen.

Euskararen eta kultur arloko hainbat saltsatan ibilia zen: Eibarren, beste inor ausartzen ez zen garaian, lehenengo euskarazko eskolak abian jartzen eta euskara ikertzen Imanol Laspiur, Juan San Martin, Serafin Basauri eta beste zenbaitzuekin batera; Durangaldeko Gerediaga Elkartearen Liburu Azoka eta beste ekintzak antolatzen; Euskaltzaindiako hainbat kontutan ere sartuta euskaltzaina izan barik -ez zuelako izan gura-; aldizkarietan idazle, hala nola Euzko Gogoia, Zeruko Argia, Jakin, Txistulari, Karmel eta Anaitasunan.

Eibarko garaian “mendebaldeko euskara” izendapena proposatu zuen “bizkaiera”ren ordean, euskalki honen eremua hobeto definitzearen. Hori dela eta, Mendebalde Alkarteak bere ekarpen honengatik omenaldia egin zion, nahiz eta orain “sartalde” kontzeptuaren aldekoagoa zen, berba hauxe euskalki honetan erabiliagoa delako.

Euskaratik kanpo ere beste baliotan sinisten zuen. Behin, enpresa bat bere lur batzuk erosi nahian zebilen eta berak ezetz eta ezetz. Herriko batek zera galdetu zion: “Bittor, bana zergatik ez duzu saltzen?” Eta honen antzeko zerbait erantzun omen zion: “Bizitzan dirua ez da dana”.

Baina, Bittorren ekarpen nagusia, zalantza barik, euskararen jatorrian teoria berritzaile bat sortzea izan zen. Teoria hori 1978an argitaratutako “Euskera erro eta gara” liburuan plazaratu zuen eta beraren ustez, euskararen baitan hiru iturri nagusi egon dira, bakoitzak eremu geografiko desberdinetik etorrira eta gaur egun hizkuntza bakar gisa ikusten dugun mintzaira bakar hau elikatu dutena. Hiru horiek iturburu mediterraniarra, piriniarra eta iberiarra ditugu.



Omenaldia  
Durangoko Azokan

Teoria hau arrazoitzeko, Bitorrek sinonimia hirukoitzaren gaia aipatzen zuen, alegia, gure hizkuntzan oinarrizko kontzeptuak izendatzeko, sarritan hiruko sinonimia dugula. Esate baterako, ura izendatzeko hiru berba ditugula: “ura”, “iz” (izozki, txistu...) eta “gar” (garbi, garona).

Bere ustean, hizkuntza sortu zen garaian hiru eremu kontzeptual nagusi bereiztu zuten gure arbasoek: izatasuna (izatea), egintza (egitea) eta getasuna (ezezkotasuna). Hiru iturburuetan eremu kontzeptual bakoitzerako erro bana dagoenez, Bitorrentzat oinarrizko 9 erro izan dira gure hizkuntzaren zutabeak. Horrela, izatasunerako: “iz”, “ar/ur”, eta “go” ditugu. Egintzarako: “in”, “uk” eta “gi”. Eta, azkenik, getasuna adierazteko “il”, “u”, eta “ge”.

Erro hauek aldaerak izan dituzte bilakaeraren ondorioz. Horrela IZetik itz, is, its, ix, itx sortu dira. INetik din eta ti. ILetik ail eta al. ARretik ara, arr eta arra. URretik ura, urr eta urra. Utik ul eta un. GOTik ko, ga, ego eta egu eta GETik ge, ke, ga, ka.

Adibidez, IZ izatasun erroarekin, suarekin lotuta, ondorengo berbak sortu omen dira Bitorren iritziz: *izio, ixitu, izeki, isioki, itxindi, izarki, itzali, izutu, su, ixu, txinpart*. Argiarekin lotuta ere hainbat hitz: *istasun, isla, izpi, ixiki, iztasun, itzal, iziotu*... Urarekin lotuta, IZ erro hau ere oso emankorra izan da: *izotz, istil, iztoki, isol, iztin, itz, itsaso, iturri, isuri, izurde, izerdi, ixaka, ixurki, itukin, izpura, ito, idoi, eze, txiz*...

Edo egintzarako dagoen IN erroarekin, ehunka aditz sortu da. Bitorrek, hizkuntzalari askok diotenaren aurka, “in” “egin” baino lehenagokoa dela dio, ez alderantziz: *in-> e-in -> egin*. Edo getasunerako IL erroarekin, ondorengo hitzak sortu direla diosku Bitorrek: *ilun, isil, argal, makal, gal, itzal, itzal(i), ortziral, ilargi*...

Bederatzi erro hauek konbinatuz hitzak sortzen joan dira zenbait arau kontuan hartuz. Esaterako, izatasun zentzua duten fonemek esanahi orokor bat dutela dio: *sua, argia, ura*. Bestetik, izatasun zentzua duten erroak elkartzuz, zentzu bereko hitz berriak sortzen direla dio, esaterako: *go-iz, iz-ar, ar-itx, ur-itx, ga-ur, itz-ar*. Egintzakoak elkartzuz egintzakoak ere sortzen dira: *uk-a-n, e-uk-i*. Eta getasunekoak elkartzuz ere ezpaz berekoak: *il-un, ga-u*.

Beste arau baten arabera, izatasun eta getasun zentzukoak elkartzuz, getasun zentzukoak sortzen dira: *is-il, itz-al, its-u*,

*itz-ul, iz-un, is-un.*

Kapanagak, aditzen sorreraz ere luze idazten du. “Izan” aditzaren inguruan, hipotesi biziki interesgarria planteatzen du. Hasieran “ni” eta “hi” bakarrik bereiztuko ziren. Gero, askotasunaren eraginez, gu eta zu. Bestea orokorra dugu, izaki eta gizaki guztientzat balio duena.

Bitxia bada ere, hiru iturburutako teoria honek genetikak azken hamarkada honetan plazaratzen ari den lan askorekin bat dator neurri batean. Batetik nekazaritza ekialdetik mendebaldera zabaldu zela diosku eta horrekin batera, seguruena, terminologia asko zabalduko zen Mediterraneoko herrietatik. Horrek azaltzen du, esaterako, toponimian dauden antzekotasunak Sardinian, Mallorkan eta beste hainbat herrialdetan hemengoarekin.

Bestetik glaziazioekin giza mugimenduak izan ziren, Europako iparraldetik hegoalderantz –Euskal Herriraino besteak beste- eta gero hemendik iparralderantz. Azkenik, Iberiarekin egon den lotura ere beti aipatua izan da (Humbolt, Larramendi...) nahiz eta azken urteotan teoria hau baztertuta egon.

Eta Arabako Iruña ere aipatu beharra dago. Bitorrek beti esaten zuen euskara gutxi aldatu dela eta hemengo idazkunak egiazkoak izan zitezkeela inolako arazorik gabe, indusketa itxi baino lehen Langraizen egin genuen biltzar batean aipatuta. Bitorrek arrazoi duen ala ez jakiteko analitikei itxaron beharko diegu, orain arte mundu guztian egiten diren datazioak ez dituztelako hemen egin nahi izan. Zergatik ote?

Amaitzeko, Euskararen Jatorriaren Biltzarrak antolatzen hasi genituenetik Bitor gurekin beti izan dugula gogoratu nahi dugu, Garesen egindako azkeneko honetan izan ezik, osasunagatik.

Goian bego.



Argazkia: UKberri

## Jose Luis Alvarez Enparantza, Txillardegia 1929-2012

Euskalari, euskaltzale, euskaldun bihotzeko, eta, garrantzitsuena, pertsona aske bat joan zaigu.

Txillardegia, herri batek horrelako bat sortzeko hamarkada asko behar duen horietako pertsona berezi eta ezinbestekoa izan da Euskal Herrian. Ingeniaritzaren ezagutzatik euskararen normalizazioari izugarritzko laguntza eman zion, euskara batuaren gurasoetako bat bihurtuz. Baina, horrez gain, euskal soziolinguistikaren aitzindari nagusia ere izan zen, ikerketa mailan (gaur egun gainditu gabe dauden azterketa garrantzitsuak utziz) zein gizartearen sentsibilizazio mailan (EHE sortzen lagunduz).

Euskararen jatorrirako ere ekarpen garrantzitsua egin zuen, adinez nagusi izanik eta osasunez makal egonda ere, Arabako Iruñako ostrakak aztertu ondoren, egiazkoak izan zitezkeela ondorioztatu zuenean. Orduan "Iruña Veleiako auzia argitzearen aldeko manifestua" izenpetu zuen, beste 2.000 pertsonekin batera, horien barruan Iglesias, Elexpuru eta Mujika moduko hizkuntzalari ausartekin. Adierazpen horretan Arabako Foru Aldundiari grafitoen datazioak, indusketa kontrolatuak egitea eta ostrakak egoera onean ote dauden egiaztatzea eskatzen ziren.

Txillardegik esan zuenez, ostraketan agertzen diren testuek ez dute zertan kontra egon behar orain arte izan dugun ikuspuntuarekin. Ostraketan agertutako aditz batzuk aipatu zituen (nor Txillardegia baino hobeto aditzen gaiari buruz hitz egiteko!), esanez, aditz forma zahar batzuen aztarnak izan zitezkeela. Txillardegik ez zuen sinatu manifestua agertu eta berehala. Antza, zalantza handiak izan zituen baina txostenak eta eztabaida ikusita, gaian sakondu eta ondorio hori atera zuen. Bere adinean eta bere egoeran, gai izan zen, berriz ere, euskalgintzan oso jende gutxik erakutsi duen mailari eusteko.

Txillardegiren jokaeraren beste muturrean baditugu arkeometria zer den ez dakitenak, gai "zailen" aurrean lotsagabeki isiltzen direnak, euskararen historia ezagutzeko ezinbestekoak diren ostrakak ikertu nahi ez dituztenak edo Arabako Iruñako eremu oso bat hondeamakinaz suntsitu dutenak...Horien aurrean zein beharrezkoak diren Txillardegia bezalako pertsona aske eta irekiak!

Zure falta nabaritutako dugu.

